



Kronikak eta iruzkinak

Baserria transmititzearen gaineko kasuistika Gipuzkoan

(Casuistics in transferring the homestead in Guipuzcoa)

KARRERA EGIALDE, Mikel M.

Euskal Herriko Unibertsitatea
Zuzenbide Fakultatea
Manuel Lardizabal, 2
20018 Donostia
mikelmari.karrera@ehu.es

BIBLID [1137-1951 (2008), 17; 65-69]

Sarrera eguna: 2008.02.13
Onarpen eguna: 2008.02.25

Zazko urrian, mintegi bat antolatu zuen Eusko Ikaskuntzak eta Gipuzkoako Abokatu Elkargoak, baserria transmititzeari buruzko arazoak aztertzeko. Bertan, arazo horrek eremu soziologikoan eta familiarrean sortzen dituen eraginak, eta ikuspegi juridikotik arazoari aurre egiteko eman diren erantzunak azaldu ziren, iritzi desberdin bezain interesezkoak azalarazteaz gain.

Giltza-Hitzak: Foru-zuzenbide zibila. Oinordetza. Baserria.

El pasado octubre Eusko Ikaskuntza y el Colegio de Abogados de Gipuzkoa organizaron un seminario para estudiar los problemas generados en torno a la transmisión del caserío. En el mismo se expusieron las consecuencias que la cuestión provoca en el terreno sociológico y familiar, y las respuestas que desde un punto de vista jurídico se han dado para afrontar el problema, además de la exposición de opiniones tan diversas como interesantes.

Palabras Clave: Derecho civil foral. Primogenitura. Caserío.

au mois d'octobre dernier Eusko Ikaskuntza et le Collège des Avocats de Gipuzkoa organisèrent un séminaire pour étudier les problèmes engendrés par la transmission du caserío. Au cours de ce séminaire furent exposées les conséquences provoquées par la question sur le terrain sociologique et familial, et les réponses qui, d'un point de vue juridique, ont été données pour affronter le problème, en plus de l'exposition d'opinions aussi diverses qu'intéressantes.

Mots Clés: Droit civil foral. Primogeniture. Caserío.

Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko lehen lantegia egin zen 2007ko urriaren 24ean Gipuzkoako Abokatu Elkargoan. Euskal Herriko zuzenbide zibilean interesik baduten legelariak batera lanean jartzeko asmoz antolatu zuten elkarrekin Eusko Ikaskuntzako Zuzenbide Sailak eta Abokatu Elkargoak lantegia. Horretarako, alor juridiko desberdinetan lanean ari diren legelariak biltzeko gunea jarri da, bertan aurrez proposatutako gaiaren gainean izandako eskarmentuak mahai gaineratu eta iritziak azaltzeko. Izan ere, esperientziak demostratu du jakintza-alor ezberdinetako kidez osatutako talde anitzak askoz ere biziagoak izan eta sinergia egokiak sortzeko aproposak direla, auzolanean jartzen baitira normalean besteekin harreman urria duten eremu iragazgaitzetan aritzen diren pertsonak.

Jorratutako gaia hau izan zen: baserria transmititzearen gaineko *kasuistika* Gipuzkoan. Duela zortzi urte 3/1999 Legeak, baserriaren eta famili ondarearen ordenazioaren inguruan Gipuzkoan dauden ohitura zibilen indarra aitortu ondoren, ohitura horiek jaso eta garatu zituen, baina Gipuzkoako Foru Zibila osatzen duten baserria *mortis causa* eskualdatzeari buruzko arauak bakarrik ezarriz. Hain zuzen ere, lege horrek ez ditu agortzen, lehenengo aldiz aditzera eman baizik, baserriaren eta famili ondarearen ordenazioaren inguruan Gipuzkoan dauden ohitura zibilak. Gai horren azaltzaile gisa, abokatua eta nekazaritzako zuzenbidean aditua den Pili ZUBIARRAIN LASA aritu zen.

Abiapuntu moduan, argi utzi behar da saio honen helburua ez zela lege hura esplikatzea, hark legelarien lanean eta baserriaren inguruko bizitzan izan duen eragina azaltzea baino. Maila horretan, Gipuzkoan sumatu daiteke badaudela nekazaritza eremuko hiritzat har daitezkeenak, hala nola Tolosa, Ordizia edo Oñati. Kontuan izan behar da, bestalde, Gipuzkoan diharduten bi nekazal sindikatuek (EHNEk eta ENBAk) egoitza Tolosan dutela eta, ondorioz, Tolosako notaritzan baserria transmititzeko legea baliatu den kasu asko bildu direla, beste hirietako notaritzekin alderatuz behintzat. Donostian, esate baterako, oraindik legearen arabera testamenturik egin izanaren berririk ez dago; oinordetza-itunak aldiz bai, familia zaharraren eta berriaren arteko harremanak bideratzeko modu egokitzat jotzen baita, egoeraren arabera eskualdaketa segituan ematea edo geroratzea baita hartu beharreko erabaki bakarra.

Kasuistikan azaldu den lehen arazoa izan da bezeroei esplikatzea beharra legearen zergatia eta helburua: baserria zatitu gabe transmititzeko aukera izatea jabeak. Aholkularien *jarrera*, abokatuena eta notarioena bereziki, oso

garrantzitsua izan da legea baliatzeko garaian. Zenbaitek, oraindik, Kode Zibilaren eraentza azaltzen diete bezeroei; posible da hori ez-jakinaren ondorioz egitea, baina gertatu izan da apropos egitea ere, behar bada legea menderatu ez eta errazenera jotzen duelako aholkulariak, edo legeak irekitzen duen aukerarekin ez dagoelako ados aholkularia bera. Horrela, zenbait kasutan, legearen aurkako iritzi pertsonalak nagusitu izan dira benetako profesional gisa jokatzeko obligazioaren gainetik, izan ere profesionalak dagoena azaldu behar baitu, gero bezeroak bere kabuz erabaki dezan.

Legea aplikatzeak ekarritako eskarmentuak erakutsi du zenbait adar agertzen direla kasu gehienetan. Lehena, *eremu soziologikoan* mugitzen den pertsonen pentsaera da. Batetik, Kode Zibilak ezarritako seniparte-sistema jendearen pentsamoldean errotuta egonik, gurasoek beren umeen ustekabeko erreakzioa jasan behar izan dute, baserriaren eremuan egindako lanaren kontuak eskatzea dela uste baitute jende askok herentziarako eskubidea. Horrela, eskritura publikoa egiteko garaian, familiakoen artean eztabaidak sortzen dira eta arazo pertsonalak azaleratzen. Lehen, arazo familiarak testamentua ireki ostean sortzen baziren, orain testamentua edo oinordetza-hitzarmenak egiteko unean ematen dira, zeri buruz eta, noski, zenbat dagokion bakoitzari, zenbaterainoko eskubidea duela bakoitzak uste duenaren arabera.

Bestetik, kontzepzio tradizionalaren eta modernoaren arteko talka ere gertatzen da. Zenbait legelarik legeari egin dion kritika izan da baserria jaso ostean titularrak sei urtez ezin besterendu izana, xedatzeko ahalmena mugatzen baitzaio. Aldiz, baserriarraren ikuspegitik, baserria aurrekoengandik jaso duen zerbait da, ondorengoei utzi beharrekoa bestalde, legeak jarritako epeei garrantzirik eman gabe. Xedatzeko ahalmena mugatzea ez da oztopo izan legea baliatzeko orduan, baserriarekiko erlazioa ez baita material eta ekonomiko hutsa baserriarrarentzat, oraindik behintzat.

Bigarrenik, *eremu familiarra* etorritz, legeak emakumearen egoeran duen eragina eta dibortzioak sortzen duen arazoa topatzen dira.

Oraindano behintzat, normalean gizonetzkoa da baserriaren gaineko jabetza-eskubidearen titularra eta emakumeak ezkontide izatearen arabera ahalmenak besterik ez ditu izaten. Gaur egun, ezkontide gazteen artean, emakumeak bere eskubideak babestea eskatzen du eta, orduan, gizonaren baserrian lanean urteak daramatzan emakume zaharrak bere egoera ere baliatu nahi du eta horrek amaren eta errainaren

arteko eztabaida piztea ekartzen du alor pertsonalean. Eredu juridikoan, semeari jabetza- eskubidea emateaz gain, bere emaztearen alde jabetza- eskubidea xedatzen bada, berriz, ikuspegi zibilean hirugarren bati egindako dohaintza da, horrek oinordetzan duen eraginarekin; eta, ikuspegi fiskalean, dohaintzaren gaineko zerga ordaindu beharra ekarriko du, interesatuen ekonomian izan dezakeen eraginarekin.

Emakumeak baserrian bizi duen egoerari buruzko eztabaidan, instrumentu egokia izan daiteke oinordetza komisario bidez antolatzea, alargunaren egoera babesteko eta sendotzeko erabili baitaiteke. Tresna juridiko hori Bizkaian oso erabilia izan bada ere, Gipuzkoan oraindano ez da baliatu izan, behar bada praktika aspaldian galduta dagoelako edo jendeak ez duelako oraindik ondo ulertzen jokamodua. Izan ere, senar-emazteei azaldu zaienean instrumentu juridiko hori erabiltzeko aukera, azaldutako nahiak erakusten du senar-emazte biek bien artean erabakita utzi nahi dutela baserriaren geroa, besteari ardura hori leporatu gabe, agian arduraren zama kentzeko edo, behar bada, elkarren arteko konfiantzarik izan ez eta bestearen herederok izendatzeko aukera kentzearen.

Baserriaren transmisioa, gehienbat, oinordetza-itunen bidez zuzendu da, kontuan izanda, helburua baserria transmititzea bada ere, hori bezain garrantzitsua dela bertan zamak, obligazioak, baldintzak edo atzera bueltak jasotzea, kasu bakoitzeko inguruabarren arabera, noski. Eredu familiarrean, bestalde, ezkontideen dibortzioak ekarritako arazoak azaldu izan dira ere halaberrez. Oinordetza-ituna egiteko garaian kontuan hartu beharreko beste faktore garrantzitsu gisa hartu behar da banaketa edo dibortzio arriskua, aurreikusi beharreko zerbait beraz.

Hirugarrenik, *eremu administratibotik* etorritako erabakiek legearen aplikazioan izandako eragina azpimarratu behar da. Administrazio publikoak zenbait laguntza aurreikusi eta ematen ditu belaunaldi berriak nekazaritzan txertatzeko. Horien artean, baserria gazteei transmititzeko laguntzak daude. Lehen, praktikan, baserriaren gaineko jabetza- eskubidea transmititzen zen, baina adineko pertsonak usufruktu- eskubidea beretzat gordez. Molde juridiko horrek arazoak sortzen dizkio nekazari gazteari baserrian inbertsioak eta hobekuntzak egiteko garaian, izan ere adineko pertsonaren (usufruktudunaren) mende geratzen baita, horrek duelako gauza gozatzeko eta aprobetxatzeko ahalmena. Kontuan izan behar da gaur egun bereizi egiten direla etxea eta ganadu- tokia, nagusiki sanitate arrazoiengatik. Noski, inbertsioa

egiten duenak segurtasuna nahi du baserria berak aprobetxatuko duela usufruktudunaren parte hartzerik gabe eta administrazio publikoak laguntza emango dio hari baserria berea baldin bada eta erabiltzeko ahalmena baldin badu; azken batean, administrazioak inbertsioak egin dituen baserriaren egoera etorkizunerako argitua nahi du. Horregatik, zenbait garaitan, Aldundiak zera eskatu izan du laguntzak emateko: eskritura publikoan usufruktua gazteari ematea eta, klausula gisa, jabea (gurasoa) hiltzen denean usufruktu- eskubidea zuenaren gain sendotuko dela baserriaren gaineko jabetza- eskubidea. Hori Gipuzkoan, Kode Zibilaren arabera, ez zen bideragarria, jabetza- eskubidea hildakoaren oinordetzan sartu eta kitatu egin behar baita. Bestalde, gurasoek jabetzari eutsi eta erabiltzeko ahalmena ematen badiote beren ondorengoari, Gizarte Segurantzari kotizatzeke arazoak izango dituzte, baserriaren aprobetxamendurik gabe ezinezkoa baita baserriar izatea. Guzti horrek ekarri izan du, bestalde, amarru juridikoak bilatzea, bereziki salmenta simulatu edo faltsuen bidez.

Horregatik, Aldundiko arduradunak oinordetza-itunak egitearen alde agertzen dira eta, zentzu horretan, legea baliatzea aurrerapauso nabarmena izan dela esan daiteke. Gainera, lehen usufruktu- eskubidea erabiltzen bazen ere, orain gurasoen aldeko erabilera- eta gela- eskubideak berreskuratu eta oinordetza- itunetan aurreikusten dira berriz. Gauzak horrela, badirudi egokia dela bi pauso bereiztea: batetik, erabilera- eta gela- eskubideak eratzea eta, hortik aurrera, erabakitzea ea baserriaren jabetza eta gozamena noren esku izango diren; hau da, azken batean bereiztea baserrian bizitzeko nahia eta baserria ustiatu beharra.

Eta laugarrenik, legearen aplikazioan *eremu fiskalak* duen eragina azpimarratu da. Gurasoen eta ezkontide gazteen artean oinordetza- hitzarmena egiten denean, normalean baserria berehala eskualdatuz egiten eta arazo hau sortzen da: gurasoek beren umeari egindako eskualdaketa salbuetsia geratzen da zerga ordaintzetik, baina umearen ezkontidearekiko eskualdaketa dohaintzaren gaineko zerga ordaindu beharra ekartzen du, ezkontide hori hirugarren bat baita gurasoekiko. Zenbaitetan zera egiten da: umeari eman lehenik baserria osorik eta, gero, horrek irabazpidezko sozietatera baserriaren ekarpena egin, ezkontideak ere baserriaren gaineko eskubidea eskuratzeko; dohaintzaren gaineko zerga ordaindu beharrik ez da izango, baina bai dokumentatutako egintza juridikoen gaineko zerga. Geroratutako eskualdatzea erabaki bada, berriz, zerga- arauak ez dute argi uzten noiz deklaratu behar ote den baserriaren transmisioa. Bestalde, dohaintza eta

oinordetzari buruzko foru-araua aplikatzen da baina izaeraz ez da dohaintzako egintza hutsa, obligazioak ere sortzen direlako hitzarmenetik. Arau fiskalak oraindik ez dira egokitu eta oinordetza-hitzarmenei buruzko aurreikuspen berezirik ez da egin oraindik.

Hortik aurrera, praktikan ematen den ohiko *kasu tipikoa* hau izaten da: baserriak eta kontu korronteko diruak osatzea oinordetzako ondarea. Baserriaren arazoa konpondu da legearen bidez, baina orain dirua banatzeko auzitegietara jo beharra etorri da, senideak haserre egon eta ez dutelako ondarearen banaketa egiten lagundu nahi. Hortik etortzen da baserria ondo definitzearen garrantzia, bereziki gaur egun baserriari jarduera berriak lotu zaizkiolako, hala nola sagardotegia edo turismorako landa-etxea edukitzeak ekartzen dituztenak. Praktikarako abantaila garbia izan da, behin baserria zer den erabakita, senipartetik kanpo geratu eta gauzak asko errazten baitira. Izan ere, baserriaren balorazioak sortu izan ditu auzi gehien: berez zenbat balio duen eta, gainera, egindako inbertsioak eta hobekuntzak zenbaterainoko ekarpena izan diren –nork egin ditu eta nola berreskuratu–.

Legearen arabera, gainera, baserria egongo da nahiz eta esplotaziorik ez egon eta horrek arazoak areagotu egiten ditu familiakoan artean; eta, bestalde, pentsa daiteke maula egiteko aukera bat irekitzen duela egoera horrek, ondarea baserria erosteko erabili eta horrela norbait desheredatzeko bidea sortu baitaiteke. Hala eta guztiz ere, oraindik behintzat ez da horrelako kasurik ezagutzen.

Legeari buruzko *iritziei* dagokienez, berriz, zenbait ekarpen azaleratu ziren.

Abiapuntu gisa, senipartea egoteak zera ekarri du: gurasoek ezin erabaki baserria nola banatu familiaren egoerara egokituz. Dударik gabe, seniparte-sistema umeen aldekoa da, baina gurasoen askatasuna sakrifikatuz. Maila horretan, gizartean onartzen da gurasoek duen guztia emateko prest daudela beren umeen alde, ziurtasuna izan gabe umeek beste hainbeste egingo duten beren gurasoen alde. Badirudi, gurasoen azken sakrifizioa dela senipartea derrigorrez eman beharra beren ondorengoei. Beraz, mahai gainean jarri behar da ez ote den garaia ikuspegia irauli eta aldatzeko: gurasoek sortu badute familia, berau babesteko erabaki aproposenak beraiek hartuko dituzte, beren gain hartutako erantzukizuna baliatuz, bai familia elkarturik bizi denean eta bai gerora ere. Beraz, erabakiak hartzeko oztopoak kasu guztietan kentzea arrazoizkoa dirudi, erantzukizunak eskatzen duen arnasa baita askatasuna.

Senipartearen sistemak, gainera, beste perbertsio bat ekarri du: jendeak uste izatea herentzia jasotzeko eskubidea duela eta gurasoek, emandako heziketa eta mantenuaz gain, oraindik gehiago eman behar izatea. Ordenamenduak, noski, horrelako eskubiderik ez du ematen, pertsonak, bizi diren bitartean, beren ondasunak gura dituzten moduan xedatu baititzaizkete.

Dena den, egia da ere bi ideia hauek ez direla nahastu behar: batetik, senipartea kuestionatzea behintzat –beste ezein erakunderekin egin daitekeen bezala–; eta, bestetik, ezer ez jasotzea eta desheredatze-idea ez parekatzea. Azken horrek, konnotazio negatiboa du eta, berez, ez da inor desheredatzen. Horregatik, apartatzearen ideia sustatu behar da, hau da, gurasoek baserria norbaiti uzten badiote, funtsatutako arrazoiak direla medio erabaki izango dute; eta, besteei uzteko beste ondasunik balute haiek, horiekin konpentsatzeko bideak egingo dituzte. Berez, praktikan hala egiten dute gurasoek: baserria norbaiti utzi, baina besteei ere lagundu izan diete aurretik edo dituzten diruak uzten dizkiete.

Baina, ideia hori zabaltzeko zereginetan, baserriko soziologia agertzen da oztopo moduan: egia da ume guztiek egin dutela lan baserria aurrera ateratzeko, oso umetatik hasita gainera, azken batean baserria ustiatzea edo industria baita. Pertsona horiei zaila zaie pentsatzea orain ezer gabe gera daitezkeenik, egindako lanaren konpentsazioa jasotzeko eskubidea dutela uste baitute. Horregatik eskubiderik izan ez arren, konpentsatzeko bideak aurreikusi daitezke. Bakoitzari berea ematea zuzena da, baina egindako ekarpenen arabera, kontuan izanda gainera ekarpenak egiteko obligazioa legez duela familiako ezein partaidek. Dena den, hori praktikan aplikatzea oso nekeza dela zalantzarik ez dago eta, askotan, bidera ezina gainera. Konponbide gisa, figura alternatiboak pentsatu eta senideei lekua emateko beste moduak aurreikusi daitezke, noski, esaterako pertsona juridikoak sortuz, horrela ondareari zatitu gabe eusten baitzaio eta guztiek parte hartu baitezakete baserria ustiatzeko arduran. Dena den, horrelako irtenbideak konpondu beharreko beste arazoak ekartzen ditu: zati horiek familiatik kanpora transmititzeko arriskua edo baserrian lanean geratzen denaren egoera ahula erabakiak hartzeko.

Hala eta guztiz ere, oinordetzaren inguruko arazoak historian zehar betidanik gertatu izan ohi dira, baina lehen agintaritzak sistema arazoak asko leuntzen bazituen ere, gaur egun gurasoen agintari-papera zalantzan jartzen dute familiakoek. Familia eta oinordetza lotuta azaltzen dira gizartean eta, oraindano, legetan; praktikan

hala gertatzen da eta Fakultatean hala irakasten dira. Beraz, familiaren osagai nagusiak aztertu eta horren arabera egokitu behar da oinordetza-sistema. Oinordetza-sistema ez da antolatu behar ondasunak transmititzeko bakarrik, baizik eta familia-ereduari erantzuteko eta zerbitzatzeko. Lehen, egitura hierarkikoak, agintaritzan oinarrituak indar berezia izan eta familiaren interesak bideratzen zituen familia-buruak. Horregatik, baserrira ezkontzen zen ezkontidea ezereen titular izan gabe sartzen zen, ondasunez gozatzen zuen eta halaxe amaitzen zuen bere bizitza; bere aldetik, umeek aitortzen zuten senipartea jaso zutela nahiz eta ezer jaso ez, hau da, azken batean praktikan senipartea jasotzea errenuntziatzen zuten. Gaur egun, ordea, familia-buruen egoera berdintasunean oinarritzen da. Gaur egun kontuan izan beharreko beste faktoreak dira dibortziazeko aukera eta umeak pertsona desberdinekin izatea. Faktore horiek arazo praktikoak areagotu egiten dituzte egungo oinordetza-sisteman, eta egokitu behar da irtenbideak errazteko familien estruktura berriaren barruan. Bestalde, familia eta oinordetzaren arteko loturak kontuan izan behar du ere karga familiarren trataera, hau da, familiako kideek ekarpenak egiteko obligazioa ere badute, familiaren barruan ondasunak eta zerbitzuak jasotzeaz gain eman ere egin behar baitira.

Bukatzeko zera azpimarratu da: legearen irizpide nagusia, askatasuna, beste eremu ekonomikoetara zabaltzeko aukera legeak berak ematen duela eta, ondorioz, horren egokitasuna aztertu beharra dagoela. Horretarako, *aurrera begira*, legea garatzeko edo arau berriak emateko, ezinbesteko oinarritzat jo dira agente juridiko guztien parte hartzea eta gizartearen beharrei erantzutea. Azken batean, helburua izan beharko luke baserriari buruzko berezitasunak kentzea, arau orokorragoen bidez baserriari eusteko erabakiak eman eta konponbide egokiak jarri izan direlako; eta lan horretan, lehenik, oinordetza-sistema finkatu beharrak lehenasuna du, beste gai zibilen garapena gerorako utziz.